



### Efoma.—Batkano'lik.

Katoliko izpafingien aldeko batzafe egin ondoren, Liege'tik eldu ta Aita Santua ikertu eban, Della Torre kondeak. Ango lanen bari emon ondoren, datofen urtean «L' Osservatore Romano»ren 75'gn. urteagaz batera, «Katoliko Izpafingien Erakusketa» bardin gabea gertatzeko artu dituen asmoen bari emon dautso. Gero «jocisten» yayak azaldu eta Bruxelles'ko Erakusketan katolikoak egin daben lan edefak azaldu eutsozan, Aita Santuaren biotza pozez betes berak adirazten emon eutson gustien lanak biotzez onetsiaz.

Beste askok be Aita Santua ikertu dabe. Euren artean: 70 lekaide basilikar Grottaferrata. Luxenburg'etik 110 bidezirik. «Angelicum» domekatar latefi arteko ikastetxeko ikasleak Gillet Domekatar Burua eurakez ebela. Vienna'tik 28 lagunek; 400 italiar irakasleki, pantzetar izpafingilari-talde bat izpafingi ospetsuenetan lan egiten dabenak. Baita ikertu dabe Balila gastetxoan Bazkunetako 100 kapileuk. Aita Santuak itzaldi laburtxo bat egin dautse, adirazten emonaz euren eskuetan dagola gastetxoak zuzentasun-bidean aztea, eta asko maite dituala esateko esan ondoren, yafaitu dau, esanaz gasteen garbitasun eta zuritasuna, aldean daroezan arkondara baltzetan be dis dis egitea lortu bear dabela.

### Mexiko'n befi lez.

Mexiko'ko agintariak Eleizaren kalteko lege bat argitaldu dabe. Lendarikariak agindu dau il onetan lege au ezarten edo betetan asi bear dala. Bear dala-ta, erabagita dau Eleizaren ondasunak, latefiaren eskuetan gelditzen dirala. Ori lapufeta garbia da, baña guretaz gauza bafi ez da. Emendik aufera ba, eleizak, abade etxe, Gotzain-yauregi, abade-ikastetxe, lekaretxe, ikastetxeak eta ondasun gustiak latefiaren eskuetan gelditzen dira. Lengo agintariak txafak izan zirala; baña oneik zerbait itzaropen lenegotan emon eben afen «kofradi» batekoak dira...

### Brasil'tik.

Brasil'dar Gastedi katolikotafak batzar eder bat egin dau. San Paulo'ko latefiko alde gustietatik, Andra Mariaren bazkunetako gaste ugari bildu ziran salestafak dauen zelai eder baten agirian San Paulo'ko Gongotzainaren Mesea entzuteko. Gaste asko gau gustian oñez eldutakoa ziran eta beste askok ogetamar ordu bultzian ibili beafa izan eben Batzafera eltzeo. Agintarien ordelariak be bertan zirala, afatsaldean Batzar edefa egin eben, itzaldi sutu ta sakonak entzunaz. Aita Santua'ri seme-menpetasun agufa bialdu eutsoen eta Berak pozez onespene emonaz erantzun eutsen.

### «Pax Romana» Bazkunaren XIV'n Batzafe Praga'n.

Ikastetxe Nagosietako ikasle begikook lan benetan edefa dagie. Aurten XIV'n Batzafe ospatu dabe Praga'n, 22 latefitako ikasle ordelariak bilduaz. Erbestetik eldu ziran 300 ordelari izan ziran eta Txekoslovakia'tik 100 inguru, 20 abade laguntzaileguz. Polonia'tik 22 eldu ziran Olanda'tik egazkiflean, Algeria'tik sasi, Peru'tik 2 ta Mexiko'tik bat. Lenengo eguna Gotzain-Mesagaz ta Yaunartze orokofagaz asi zan, Grémaud abak itzaldia eginaz Batzafe asierfa Kaspar agurgafi, Boemia'ko Gotzain buru ta agintarien ordez Sramek ministroa bertan zirala egin eben, Kistar bakeatzaz izan ziran itzaldak Ruckl agurgafia, Sramek abade ta «ministroak» eta Kaspar agurgafiak, kistar baketzaz ekin eutsen batez be gaur guda-sufumufuak zabal dabilzan aldi oneitan, egizko

bakearen alde lan egin bear dala esanaz.

Aita Santuak idazki bat zuzendu eutsen Batzarkideen asmoak onetsiaz. Itzaldi, yai, yolas eta Eleizkizun edefak egin zituezan, eta erabagi sakonak artu be bai auferantzean bazkun onek kistar bakearen alde egiten dituan lanak geyagotzeko, ikasleak kistar gogoa biotzeratuta gizartearen barizkunda gertatzeko Zabalkunde lanari ekiteko erabagia artu eben orain arte, euneko 30'tik 50'ra baño ez dira bazkidetuta dagozan katoliko ikasleak-eta. Ofrez gañera erlejiño gayetan, geyago ta irakatsi sakonagoak egin eta gizartearen onerako lan gogoz egiteko erak azaldu ta aztertu ziran. Lan edefa bazkun txalogafi onena!

### «L' Action Francalse»ko baten biurtzea.

Gustiok dakigu Aita Santua'ren aginduak, yarki ta «L' Action Francalse»koak, setakeririk baltzena agertu dabela igaroko 9 urte oneitan. Onein arteen M. Etienne de Rennes aufenariakoa izan da auzi onen asi-ratik. Igaro dan ilean gaizki gexorik yausi zan eta Yaunaren eskafak garafari urten dau. Il baño egun batzuk lenago bere okefak autortu ta Eleiza ta Aita Santua'ren agindu gustiak ontzat artzen dituala, zifaldarien aufean autortu ta Eleizaren magalean il da. ¡Yauna, eskefak!

### Ipar-Amerika'ko katoliko - baltzak.

Dagonila'ko «Interracial Riew»ek diñonez, Ipar Amerika'ko Latefi Batuetako biztanle baltzak 13 miloi dira. Oneitatik 5 miloi protestanteak dira, 7 miloi ta 750 milak ze zifeste dauken ez dakie eta katolikotafak 250.000.

Baltzen artean lan egiteko berariz gertautako mixiolariak onexek dira: 300 abade ta 1.100 lekaime. Oneik zuzentzen ditue 205 ikastola 32.092 ikaslegaz eta eleizak 210 dira. Badauke ondño lan egin beafa!

### 123.000 lekame Latefi-Batuetan.

Zenbakuntza egiten urte bian lan egin ondoren, aago Katoliko-Bazkun batzuk bertako lekaimeen zenbakuntza argitaldu dabe, Ipar Amerika'ko Latefi Batuetan dagozan katolikoak ogei miloi ta zerbait geitxoago dira. Eta lekaimetan bakafik 123.304. Oneitatik, betiko eskintzak egiten dituenak 94.105, eta aldizko eskintzak egiten dituenak 16.932, eta 11.626 gertatzen dagozanak, euren eskintzak egiteko. Lenengo ta bigarren mañako ikastola lanetan diarduenak 63.885, eta Irakastetxe Nagusietan 217. Erukizko egintza ta erietxeetan lan egiten dabenak gustiz 12.297.

### Edarikeriaren aurka.

«La Croix d'or» bazkunak Orleans'en bere XIV'n Batzafe ospatuko dau, ifa onen 25'tik 29'ra, Orleans'ko Gotzain Courcoux agurgafia lendakari dala. Batzar onetan urtero biltzen dira pantzetar eta erbesteko ordelariak edarikeriak egiten dituen kalteak azaldu, eta ixuri onen aurka gogor ekin bear yakola erakusteko.

Emen olango batzafeak noz izango ete dira?... Beafizanik ez dngolako ez da izango!

### Italia'ko Eukaristi-Batzafe.

Lengo zenbakian esan gendunez, andikiro asi zan Teramo'ko Eukaristi-Batzafe eta andi'roago amaitu da. Batzartxoetan lan gogor egin eta erabagiak artu ondoren, eleizkizun zoragafiak egin dira. Berarizko eleizkizunak egin dira Sarkaldeko eleizkaretan be. Gotzain-Mesak esan ziran Bizanzi-slaberaz, Bizanzi gerkeraz, eta armeneraz bitartean laterazkoakaz. Gau-gurtzeak sutuak izan ziran eta Aita

# IZPARAK

## NAPAROA

### Iruña.

Udazken-aroan sartu gara; ez otz, ez bero, baño busti.

Emen izandu diren agunkarilari afotzak, bozik eta bozik juan dire, eskefak ematen egin zaizkoten ohorengatik.

Emendik Gipuzkoa'ra juan direlarik, Azkoiti'tik ere, agur egiten eta eskefak biurtzen.

Baiki: emen gelenek begi onez ikusi dituzte; efan beafik ez da, Arbizu jauna eta Afaiza jauna, biek ederki lagundu dituzte; franzesez ere ongi dakitelakoz, mintzaldiak unela egiteko.

Eken aldetik ere, españolez ere mintzatu zen Candesus jauna, efan ez, mendiz arandikoak eta unaindikoak enda edo odol berekoak gara.

Ekiekin batio ere, emen zen Nequeaur jaun kantaria eta jakina, unek ere erakutsi zigun Eliza nagusian eta beste nonbait, kantatzen badakiela.

Juan den ostrialetik eta astelena artio, Lurdes'en egon dira Nafaroka beilarik.

Asteartean «Zudaire» delakora juan zen, uda untako azken uar-saldoa. Uda ontan egin den gaurrik edefena.

Eliza nagusiko ebasgoatik befiz ere «Arias» delakoaren etxean 672 afipitxi bildu dituzte, berak salatuz «Radio» arekin kontu idukitzeko, Tresnaren kutxa barnean «pila eléctrica» iduri baten barnean zauden; eta gero, befiz diote «toison» delakoa ere agertu dela.

Arazo untarik gauza bitziak gertatzen ari dire.

Palencia'tik ekafi zuten delako «Casado»tik, ez dute argitasunik atera.

Eliza nagusiko kalonjeak: biziki kezu eta auzi eman diote, Madrid ko befi edazale batza «Febus» delakorri; Eliza nagusiko kalonjeagatik efan dituen gaizkiengatik.

Iruñe'ko iri gizonek Tafala'ko ur-kalten ordaintzeko dirurik ez omen dute.

Nai lukete «Sanatorium antituberculeux» delakoa, beren esku idukitzea.

Nai dute San Kristobal delako gaztelua ez dadelat kartzela andi bat bilakaturik gelditu; eta gubernutik erdiesteko, ekendu dezaten emendik giltzapeturik daudenak.

Baztango Azpilikueta delakoan, etxe bat efe da.

«Sorlada» delako efan bada elizaxto edo ermita bat, eta ebastera sartu zirenak ez bai zuten diru-kutxa batean sos batzu baizik atzeman

Santua'ren Ordalaria'ren itzaldi samur bategaz amaitu ziran. Azkenez, egin ziran yai gustie amarik edefena emeteko, 200 mila lagun bertan bildu ziran gure Yauna'gaz onespene emon eutsen. Aita Santua'k eta agintariak bialdu eutsiezan agufei maitekiro ta poza agertzen erantzun eben.

M.'tar G.

«Andredena Mariaren» iduria eta aufarena puskatu eta efe nai izan zuten: ¡doakabeak!

Gobernadore jauna Madrid'en dago. Aren ordeko egiten ari dena, Tudela'ra ez daitekela jua; non igandetik «Eusko ikaskuntza»-ko ikastaroan daudelarik.

Abere eta lur lanetako ikasgaietan emengo Diputazioeak lagundu ditu.

Bizpairua egunez, Iruñe'n izan dugu «Argia»ren Ofeaga'ko befi elzale argia eta langilea «Menditxuri» jauna.

Bozik eta bozik solas aldi gaitzak egin ditugu, baño euskaraz. Ume batzu bezala, euskaraz ikasteko, euskarari egin diogu gogoz eta biotzez.

Euskalduna argia eta buru onekoa delarik, asko ez jakinagatik; arenganik asko ikasi daiteke.

¡Zenbat esakera, zenbat ateraldi bitzi; zenbat itz eta izkera jakinagafiak, Azkue jaunak gisa untan ikasi dituenak!

Juan den igandean gazte asko Donostiratu ziren: egia efateko, bazen zergatik: goizean estropada edo fegatak; egin etzirenak; afatsaldean befiz, eskuzko pilota partida: Atano III bakafik eta Etxabe III-Txapasta.

Remontezko beste bi partida: Abrego I bakafiz eta Arano II Ugarte; José Irigoyen eta Iturain, iruen kontra Abrego II Artza-Zabaleta.

Untaz landara, «Osasuna» eta «Barakaldo» fubolean.

Iruñe'n ere baginuen eskuzko partida polita Afieta Lasa (Azkoitiako) eta Lasa-Jesus.

«Consejo foral» delako juntarien aukera zuten jua den ortzegunean. Ehun efiko-etxe etarik befogeita biek etziren aurkeztu boza ematera. ¡Afigafi da nola ez duten gogotikago artu, batza onu-emale aren alde zerbait egiteko!

Edo, gure efietako gizonek ez dute lagundu nai «Consejo foral» delakoa Diputazioean dauden jaunengatik; edo batza ori ez dute maite.

Urbilen aldi artio, Jainkoak ala nai duela.

LAREKO

# BIZKAYA

### Mañari.

Aspalditxuko osafak dirala-ta, gaurko nire izpafok «siku ta lior»doyaz; batetik artezkari jaunaren oar bereziak dirala, ta bestetik gure osaba Juliantxu'k erdeldun bafitsu bati bein esan eutsona gomutauta, egunokaz, zer pentsaurik asko be badarabilt eta... Ona Juliantxu'ren «efepan» itzela. «Tanto hablaría kabesa romperia.»

### Juan-etoñjak.

—Gastelu-Elexabeitia'ra jua zan Bilbao'tar Bingene andersa.

—Befiz'tik etofi zan Ariznabafeta'tar Joseba aberkidia.

Elgeta'tik Dolara'tar Ilarun eta Elosu'tar Kaulde senar-emazte begi-koak, euren seme-alabakaz.

—Aste-ontan egon dira emen,

«Agarel» eta «Etarre» euzkel idazle azkafak.

—Bata lengo egubenez egon ziran emen Altuna'tar Joseba Bilbao'ko abertzale zintzua ta Okamika'tar Iñese bere emazte begikua.

### Gexorik.

Egunokaz gexorik aurkitzen da, Oñtuoste'tar K'ipiren (C'ipriano) gizona. Osasuna opa.

### Askari bat.

Astelenez, K'panaga'tar Pantzeskak, euzkeraz ikasten etofita emen aurkitzen dan Santurtze'ko mutikuak konbidautu, bere lxekeen etxian askari eder bat jan gendun. Pantzeskatxu mutiko zoljak, euzkeraz polito ikasi daula-ta, askarija, pozaren-poz-emon euskun. Ederto, eskefik-asko ta zorijonak.

### Ikoak.

Banaka-banaka elduten ontxe asi dira. Eta udagoyena epela ixaten bada, aurtun ikoak burkadaz be elduko dala uste dago; zuzatzak garaunez beterik dagoz ta. Ego-axiak putz-egingo al-dau ba.

### Ezkontza.

Ona gitxitzuk dakijan izpar bat konpizantza gustijaz belafira. Atzo esan euskun «Motrokok» bere ilobia dan Zabala'tar Zizilio Durango'ko mutil gastia, datofen ilaren lenegotan edo, eztaikit nungo neskiak be, efi-ontako elezan (J. L.) ezkonduko dala. Bere afitaren eta aufetikoen erijan ezkontzia gura daula mutilak eta. Ederto yagok ori, zorijonak. Beinguatik erdera apur bat egiten itxi egiztazue. «Suyo p'ereser, ondra mereser».

MAÑARIKO

## Eguñola Joskolak

Lekelito'n  
Ufutzizkina 63

Bermeo'n  
Ufutzizkina 76

Edonungo eskariak egiten dira. Oyalik onenak. Berebiziko artaziak.

## Mundaka.

### Eriotza.

Igazi dan egubentian Oleaga eta Afieta'tar Karnele umetxua il zan. Geure tamal-agufa bere sendijari.

### Ibilaldi bat.

Emengo Uskurtz-ikasliak urteroko ibilaldija egin eben. Goxeko zortzi ta erdijetan belbil eder baten, abesti gozo ta samufak abestuaz, Gaztelz'era jua ziran.

Uri polit onetan ordu batzuk igarota, Urkiola'ra efosarijioa otol egitera jua ziran, gabeko zortziretan etxera elduteko.

### Ura.

Txarto gabiltz Mundaka'n uragaz. Legorte andirik eztagon-afen, itufiak izten dira ta iru orduz bakafik zabaltzen daukubez.

Uri baterako ura bier-biafekua da ta zer-edo-zer egin biar datofen udarako. «Kepatxu»'k bere idazlanan inuan lez, diru apurtxu bat bakotzak emon ezkeru, depositu eder bat egin al izango da ta onetara ura ugari eukiko dogu.

### Euzkel-ixena.

Geure adizkide ona dan Gandarias'tar Andon'i'ren emaztiak alabaria bat izan dau ta Miren Begoñe euzkel-ixena ezafi dautse Zorijonak.

ANITURI